



**Kultura eta aisia
euskaraz DONOSTIAN**

haur zinema

- ▶ **Igelak & Zapoak**
Zuz.: Simone Van Dusseldorp.
2008. 75'
Abenduaren 11n estreinaldia
Antiguo Berri zinema aretoetan

antzerkia

- ▶ **Euskarazetamol**
Ez dok hiru bikoteatroa
Abenduaren 11n, 20:30ean
Euskaltegiko ikasleek %50
beherapena
Abenduaren 12an, 13an,
20:00etan
Lugaritz kultur etxean
Sarrera: 10€
- ▶ **Aitarekin bidaia**
Hika antzerki taldea

Artea →

Laboaren omenez



**Begiz
Ismael Manterola Ispizua**

Aste honetan komunikabi-
deek Mikel Laboaren
omenez egin behar den
eskulturaren maketa zabaldu
dute.

Barka nazatela eskultoreak eta
eskulturaren bultzatzaileak fede-
onez ari direlako, baina uste dut ez

dugula ezer ulertu. Ez dugu Mikel
Laboaren musika ulertu, ez dugu
Mikel Laboa pertsona moduan
ulertu, ez dugu ulertu, azkenean,
Mikel Laboaren arte proiektua.

Usurbilen jartzekotan diren es-
kulturrak beste garai bati erantzun-
ten dio. Harriz egindako oinarriak
gainean zerbait behar zuen, mo-
nolito antzeko bat, hau da, eskul-
tura tradizionalaren itxura zuen
zerbait, eta horixe da aukeratu du-
tena, harri baten gainean mate-
rial tradizionalen bidez egindako
totema.

Baina Laboa bizitza guztian tra-
dizioa eta modernitatea elkartzen
ahalegindu zen, herri tradizioetik

jasotako melodiak modernitatea-
rekin musika komertziala edo
akademikoa baino errazago elkar-
tu zitezkeelako.

Aurreko asteko artikuluan
John Cage aipatu nuen, eta berriz
harira ekarri behar dut Laboari
buruz hitz egiterako orduan, oina-
rriko pertsonaia izan zelako La-
boaren ibilbidean eta musikaren
esperientzian. Esperientzian eta
esperimentazioan esan behar du-
gu, Mikel Laboaren musikak espe-
rimentazio handia izan zuelako,
nahiz eta omenaldiko ekitaldietan
lekeitioak gutxi programatu.

Baina euskararen musikotasu-
narekin jokatzeari, hizkuntza asko-
ren arteko soinuak Bachen musi-
karekin elkartzea edo hitzak eta
isiluneak doinu tradizionalekin
tartekatzea, Laboak lagatako he-

rentziarik interesgarri eta ederre-
netakoa da.

Baina bere omenez egin behar
dugun eskulturaren 60ko hamarka-
dako edo lehenagoko formulatara
jotzen dugu. Hori al da 2009. urte-
an Mikel Laboak merezi duen
omenaldia? Nik nahiago nuke
gaur eguneko eskultura publikoa-
ren gaineko kezka izango lituz-
keen eskulturaren bat: oinarria-
ren baldintzarik gabe, tokiaren
mugarik gabe eta ahalik eta aska-
tasun handienarekin, Mikel per-
tsona askea zelako eta askatasuna
maite zuelako.

Arte proiektu ausarta aurrera
eramateko ahaleginak egin zituen
bizitza guztian; badakit zaila dela,
baina ez dezagun eskultura kon-
bentzionalen bidez domestikatuta
hil ondoren.